

## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Dakigunez, funtsezko elementuak enpresa bati bere balio-proposameneko eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak sortzea ahalbidetzen diotenak dira.

Enpresa baten funtsezko baliabideak honela banatzen dira eta gure enpresak arrakasta izan dezan hauek kontuan hartu behar ditugu:

### **Baliabide fisikoak:**

- Lan egiteko bulego bat edo leku finko bat.
- Ordenagailuak, tabletak edota mugikorak eduki behar ditugu gure web gunea eta aplikazioa kudeatzeko eta kontrolpean eraman ahal izateko eta gure bezeroen zalantzak, kexak, galderak eta abar erantzuteko.




### **Baliabide intelektualak eta giza baliabideak:**

- Guk kontratatuko ditugun pertsona profesionalak gure web gunea eta gure aplikazioa diseinatu dutenak dira. Diseinu guztia haren esku utziko dugu, guk ideia nagusia zein den eta gure xede nagusia azalduko dizkiegu eta haiek horretan oinarrituko dira. Guk ea egin dutenarekin ados gauden edo ez esango dugu eta bururatzen zaizkigun ideia gehiago proposatuko dizkiegu.

Kontratatuko ditugun profesionalak gure webgunea eta aplikazioa diseinatzeko aplikazioak edo sistema informatikoak dituztela suposatzen dugu.

- Beste aldetik, gure enpresa arrakasta izan dezan, Euskal Herriko unibertsitate guztiekin kontaktuan jarriko gara gradu bakoitzerako behar den informazio guztia lortzeko eta gure plataforma eta sareetan ipintzeko. Hortaz aparte,



euskal unibertsitateetan ikasi duten ikasle batzuekin kontaktuan jartzen saiatuko gara. Gure web gunean eta aplikazioan, bere unibertsitatean egindako graduan izan duten esperientzia orokorra kontatu dezakete borondatez, etorkizuneko ikasleei haien aukeraketetan lagun ditzaten. Haren esperientzia kontatzen duten ikasleek kalifikazio bat edukiko dute, batetik hamarrera.

- **Finantza- baliabideak:** Gure aurrezkiak erabiliko ditugu: Aplikazioa bat sortzeko prezio orokorra 25.000 eurokoa dela dakigu eta web gunea sortzeko prezioa 1000 eurokoa da. Hala eta guztiz ere, gastu gehiago daude, kostuak atalean azalduta agertzen direnak.

Orduan, kostu horiek gauzatzeko, gure enpresa hiruk sortu dugunez, bakoitzak 9400 euroko inbertsioa egingo du. Guztira 28.200 euro izango ditugu gure enpresa sortzeko eta momentuz 540 euro ditugu soberan, hileroko gastuak ordaindu ahal izateko.

Proiektuak arrakasta izateko gure funtsezko kontaktuak web gunea eta aplikazioa sortuko duten profesionalak eta esperientzia kontatuko duten ikasleak dira.